

Pelay Orozkoren oroitzapenez

Ez da nik esan beharrik Migel Pelay Orozko zein gizon atsegina zen, bere idazkiak hor ditugu lekuko.

Izan ere, idazle bakoitzak gogozko arloak eta beharrezko iruditzen zaizkion gaiak lantzen ditu, beretzat aukerako duen hizkuntza tresnatzat harturik. Azken batean, bakoitzaren helburuzko emaitzak dira baliagarrienak.

Migel Pelay Orozko ez zen nolanhiko idazlea eta bere lanak eta ikuspegiak edozein euskaldunentzat dira ezagugarriak. Horrela pentsatzen ez duena bere buruaren kaltetan ari dela esanqo nuke.

Irakurgarriak benetan "Olarso" izenordez erabiltzen zuela irakurri nituen *Retablo vasco* (1946) eta *El ritmo de la época* (1948), beste zenbait libururekin bateratsu, Argentinan argitaratuak. Liburu horiek gogoz irakurri nituen egilea nor zenik jakin gabe, eta ez ditut berehalakoan ahaztuko. Alde batetik, sorterritik urruti herriminaren eraginez idatzi zituenak eta aldi berean, bestetik, mundu zabaleko idazleei buruzko kontaera eta saio laburrak agertzen zituen. Gero, aberriratzearan bere izen-deitura jatorra hartuz, horietako batzuk, berrikusiz agertu zituen *El escritor y su brújula* (1964) zeritzon liburuan ikus dezakegunez. Baina, hori baino lehen, Pio Barojaren alderako joerak eraman zuen *La ruta de Baroja* (1962) idaztera. Hor ere badugu zer ikasirik.

Aberriratzetik laster izan nuen berarekin harreman zuzena edukitzeko aukera. Heriotzaren ondotik, euskarazko aldizkariak ezer guti esan dute pertsonaia honi buruz, nonbait, euskal letretan ezezaguntzat dute. Beraientzat kalte! Baina, gutxienez, oroi Ameriketatik itzultzean *Zeruko Argia* eta *Jakin* aldizkarietan euskaraz zenbait artikulua idatzi zituela. Ez zen izan euskara batua-ren aldekoa eta, nire ustez, horregatik jo zuen atzera, euskaraz idaztea urrituz. Baina bere lumaz agertzen zituen literatura jakintza eta iritziak bikainak ziren. Idazten jarrai zezan, niregandiko ahaleginak alperrikakoak izan ziren.

1983. urteko martxoaren 18an lagunarteko omenaldia eskaini zioten M. Pelay Orozkori eta handik hamar egunera, Donostiako *Hoja del Lunes* hartan, eskaini nion artikulua bat. Gaur, bere heriotza-

ren ondotik, iruditzen zait, han nioenetik zerbait berriz azaltzeak merezi duela, oraingo gazteen jakingarri. Eta hara zer nioen:

Gazterik Euskal Herriaren historiaz eta kulturaz kezkatzen hasi nintzenean, bide sasitsuak aurkitu nituen, areketa Campiónen irakurketaz argi izpia agertu arte. Nire inguruan aurkitzen nituen abertzalerik gehienak sentimentu hutsezkoak ziren, jakituriaz urri eta fantasiaz ugari hornituak. Liberal jitez, S. Arana Goirik ez ninduen betetzen eta bere jarraitzaileek gutiago. Campión besterik zen ordea.

Egia esan, euskal liburrak aurkitzea ere ez zen gauza erraza. Liburu-denda guti batzutan ezagunen bidez lortzen zen zerbait gerra aurreko edizioetarik eta isilpean herbesteetan argitaratzen zenetik. Bilaketa haietan ezagutu nituen idazle abertzaleen artean atseginetakoa iruditu zitzaidan "Olarso" izenordepean gordetzen zen Migel Pelay Orozko bere liberaltasunagatik. Norbaitek errekomentatu ninduen *Preludio sangriento* zeritzan eleberria eta bere bila hasi nintzenean topatu nituen lehenik *Retablo vasco* eta gero *El ritmo de la época*. Horietan aurkitu nuen idazle naharo eta gogoetatsua, abertzale izanik kultur gaiak politika baino maiteago zituen, bere adiskide Iñaki Urreiztietaren aitortuko zuenez. Ondorean ezagutu nituen *A la sombra del Aitzgorri* eta gerokoak. Azken obra hortako bigarren partea *El escritor y su brújula* deritzanean berriturik agertu zuen eta bertako gaiek asko esan nahi dute garai hartako abertzale baten alde.

A la sombra del Aitzgorri hainbeste zaletu zuen pilotaz hasten da eta ondorean hiru liburu idatziko zituen Euskal Herriko kirol jator horri buruz. Duela hiru urte *Los Pelotaris* (1980) izenburuz hirurak liburu batean birargitaratuko zituenak. Bertatik ikus maitatzen duena gai hartzen duela eta fidelki jarrai. Era berean jarraituko ditu euskal artistak eta idazleak ere. Gainera, maite ditu Baroja eta Unamuno, gure artean edozein memelok arbuatuak. Hoiei buruz ere orrialde ederrik idatzi zigun. Baina, era berean, euskarazko idazleak ezagutzeko eta ezagutarazteko doaina ere izan zuen, hortarako euskararik aski dakienez, eta idatzi ere egin du, bereziki *Gran país, difícil país...* eta *La encrucijada* liburuetan. Pundu ezta-



Miguel Pelay eta Jorge Oteiza. 1998 Urtea. (Félix Polo Etxanizek utzitako argazkia).

baidatsuak ikutu zituela? Hala ere, ideia errespetagarriak dira bereak. Asmorik onenez eginak.

Barojari buruzko bi liburuak eta Oteizaren bizitza eta lanak pentsaera txukunez jaso zituen.

Euskarazko literaturatik maiteenak Iztueta, Iparragirre eta Bilintx zituen Pio Barojak bezala, eta aitortzen du Barojak Lizardi bezalako bat ez eza-gutzearen kaltea. *La ruta de Baroja* deritzan liburuaren 188. orrialdean irakur daitekeenez Pelay Orozkok ongi ulertu zuen Lizardiren balioa poesia sortzaile bezala, ekarriaz gainera poesi teknika, hizkuntz landua eta irudimena azalduz. A. Zavalak, *Bilintx* lanerako itzultzaile egokia aurkitu zuen Migel Pelay Orozkogan.

Omenaldi egunean, penaz entzun nituen bere eskertza hitzak: gaur, orain hogeitau urte baino gutiago irakurtzen dela; duela hogeitau urte, orain berrogei baino gutiago; eta, zalantzarik gabe, joan zen mendearen azkenaldian Donostian M. Soroa, Arzak, Serafin Baroja eta beste zenbait elkarren artean biltzen zirenean literaturagintzarako giro hobea zutela nonbait. Baina ezta hori bakarrik. Penagarriago zaigu garai hartakoak beren lanak euskaraz ematen zituztela jakitea. Gainera, Migelek argi erakutsi duenez, Bilintx ez zen askok uste zuten bezalako arlo horietakoa, baizik garaiko poeta erromantikoak ezagutzen zituen eta anitz irakurria zen.

Gaztaroan irakurri nuen Migel Pelay Orozko idazlearen oroitza onak ditut. Bere idazkera ez ezik bere pentsaera liberala ere maite nuen. Idazle bezala, goragoko mailak merezi ditu eta goragokoak izango zituen noski bere herriarenganako maitasunez hemengo gauza tipierri hainbeste lotu ez balitz. Baina bestalde, berari esker, ospe hobea dugu bazterretan euskaldunok. Eta, euskal idazleek badute zer ikasirik bere estilo eta adierazpen eretatik. Langiletasunean zer esanik ere ez hogetaka liburuak idatzi dituenagandik.

Baina inork ez dezala pentsa Pelay Orozkoren

Euskal Herriarenganako maitasuna itsua izan denik. Lehen aipatutako lanez gainera hor ditugu *Diálogos del camino* eta *Pórtico Euskeriano*, gure izakeraz, naiz on edo naiz txar, egiten dituen saiaerak erakusten dizkigutenez, zintzotasun osoa nabari da. Zintzotasunik garbiena nabari den bezala *Retablo vasco* deritzon liburuko "Castilla y Euskadi" kapituluak, eta guretzat gaur egun ere hain baliagarri zaiguna, zeren norperarena maitatzeko ez baita beharrezkoa besteak gorrotatzea. Pelay Orozkoren erakutsia.

Hori da 1983ko martxoaren 28an Donostiako *Hoja del Lunes*-ean idatzi nuena, artikulua labur batean eman nezakeanaren arabera.

Gure artean gutik bezala aztertu zituen idazle eta pentsatzaile klasiko berriak eta horietaz zituen ikuspegiak kontutan hartzekoak dira. Bere lanok edonor bultzatzen dute irakurketara eta hemendik dator gure buruentzat munduarenganako irekitasuna.

Irakurtzekoa da Ortega y Gasset eta Unamunoren arteko uste desberdinei buruzkoa; Ortega zioenean Espainia europeartu behar zela, gure Unamunok erantzun zion Europa espainiarrean hobe zela. Iritzi horien inguruan Pelay Orozko eskaini zigun saio, gaur egundik begiraturik, gutariko nornahik zalantzarik gabe Ortega y Gasset zenaren alde jartzekoa ez ote? Ba, aburu horretakoa zen Migel Pelay Orozko bera ere eta ez zitzaion arrazoirik falta.